



# **KOMUNIKATUZ ERALDATU**

Herriak euren komunikazioaren jabe



**MUGARIK GABE** Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakunde asanblearioa da, 1987an sortua.

Gure lanak nola injustu iruditzen zaiguna salatzean hala bizi eredu alternatibo, feminista eta ingurumenarekiko jasangarriak sustatzean datza, justizia soziala eta pertsona eta herri guztien eskubide indibidual zein kolektiboak bultzatzearekin batera.

Eta lan hori 2 arlo tematikoren bidez gauzatzen dugu:

- 1) Aktibismo feministatik emakumeen eskubideen defentsaren sustapena eta berauen urraketaren salaketa.
- 2) Elikadura burujabetzaren aldeko lanetik, kontsumo kontziente eta arduratsutik eta ekonomia solidario edo trantsizio energetikotik bizi eredu jasangarrien sustapena.
- 3) Herri indigenen eskubide indibidual eta kolektiboen promozioa, kolonialismoa eta patriarkatua ere salatuz.

Hori dena Euskal Herrian zein Latinoamerikan egiten dugu, eta horretarako bi erreminta erabiltzen ditugu:

- **Eraldaketakarako hezkuntza eta eragin politikoa:** gure garapen eredu neoliberal eta patriarkalaren ikuspegi kritiko batetik, plataforma eta sareetan parte hartuz, mugimendu sozialekin lan eginez eta heziketa prozesuen bidez alternatibak bultzatuz.
- **Elkartasun eta kooperazio internazionala:** E rakunde lokalekin, emakumeekin, baserri-tarrekin eta erakunde indigenekin prozesuak lehenetsiz Latinoamerikan, herrien burujabetza babestuz.

Gure lanaren inguruko informazio gehiago [www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org) atarian duzu.

## ARABA

“Itziar” Elkarteen Etxea  
01003 Gasteiz  
Tel: 945 27 73 85  
[araba@mugarikgabe.org](mailto:araba@mugarikgabe.org)

## BIZKAIA

Vicente Garamendi Taldea 5, lokala  
48006 Bilbo  
Tel: 944 15 43 07  
[bilbao@mugarikgabe.org](mailto:bilbao@mugarikgabe.org)

## GIPUZKOA

Katalina Eleizegi 46, beheka, 3. atea  
20009 Donostia  
Tel / Fax: 943 44 59 77  
[gipuzkoa@mugarikgabe.org](mailto:gipuzkoa@mugarikgabe.org)

### Antolatzailea:



**MUGARIK GABE**  
Giza Garapen Jasangarria eta Bidezkoa lortzeko  
lanikidetzarako gobernuz kanpoko erakundea  
Herri-Onurako Elkartea

### Babeslea:



**GARAPENERAKO  
LANIKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA** AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO

Gure proiektua konpartitu eta babestu nahi baduzu 18. orrian duzu nola egin. Mila esker!!





# KOMUNIKATUZ ERALDATU

## Herriek euren komunikazioaren jabe

2014 eta 2015ean zehar “Eutsi edo Hil” izeneko kanpaina batean ibili ginen buru-belarri, horren bitartez Euskal Herrian egindako ekintza anitz eta audiobisual desberdinen bitartez Latinoamerikako Herri Indigenek nagusiki enpresa multinazionalen eskutik jasaten dute eskubide urraketa salatu eta herri hauek iristen zaizkigun proposamen, aldarrikapen eta borroka ezagutzera eman ditugu.

Oraingo honetan, eta aipatutakoaren jarraipen gisa, 2016 eta 2017 urteetan “KOMUNIKATUZ ERALDATU - herriak euren komunikazioaren jabe” hezkuntza eta sentsibilizazio kanpainari heldu diogu. Kanpaina berri honekin erakutsi nahi dugu nola Latinoamerikako herri indigenek euren komunikabideak sortu dituzten euren eskubideak defendatu eta herri bezala euren nortasuna eta hizkuntza propioak sendotzeko. Eta hori uztartu ere noski Euskal Herrian helburu antzekoekin Herri Komunikabideek eta komunikazio alternatiboaren arloan dabilzan eragileek egin duten eta egiten duten lanarekin.

Horretarako, 2016ko maiatzean eta lehen urrats moduan, tokian tokiko komunikabideekin batera Jardunaldi desberdinak antolatuta ditugu Euskal Herriko eskualde desberdinetan: Aiaraldean, Uribe Kostan eta Debagoienan. Bertan komunitzaile indigenak eta bertakoak izango ditugu hitzaldi, mahai inguru eta zinema emanaldi desberdinetan parte hartzen. 2017an ordea Latinoamerika eta Euskal Herriko komunikabide desberdinen artean esperientziak trukatzeko topaketa desberdinak antolatuta ditugu, eta baita komunikazio eraldatzailaren inguruko formakuntzak ere.

Esku tartean duzun liburuxka honetan kanpaina honetan jorratuko ditugun zenbait gaietan sakontzen hasteko artikulu eta elkarrizketa aurkituko dituzu. Interesgarriak suertatzen baizaizkizu eta gustoko baduzue, gure web gune eta sare sozialen bitartez guzti horren berri izan dezakezue eta ekintza desberdinetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

**Kanpaina honen inguruko informazio guztia hemen:**

[www.mugarikgabe.com/komunikatuzeraldatu](http://www.mugarikgabe.com/komunikatuzeraldatu)



#komunikatuzeraldatu





# Deskolonizazioa eta despatriarkalizazioa sustatzeko komunikazioa

Komunikabideak, berez, kultur, ezagutza eta pentsamenduen ondarean sarbidea izateko demokratizaziorako tresna gisa kontsideratu litezke, nahiz eta gehienbat kontsumismoaren zabalpenerako erreminta bat islatzen duten; mendebaldeko pentsamendua zein estereotipo matxista, klasizista eta xenoboeno indartzea.

Komunikazioa prozesu demokratiko, herrikoi eta parte hartzaile gisa, aldaketen eta salaketa sozialaren sustatzailea, zokoratua geratu da agente sozialengandik, horrek suposatzen dituen zailtasunekin, kasu batzuetan legezko-tasunik eza eta medio zein baliabideen falta,

mass medietan nagusi diren mezu eta irudien alternatibak erakutsi dituztelarik, arau heteropatriarkala eta kapitalista bultzatzen duten interes ekonomiko eta ideologiko partikularren aurrean kontrapuntu bat sortuz.

Latinoamerikan komunikazio prozesu herrikoiak elementu interesgarriak izan dira kontinente osoan beste komunikazio modu bat erakusteko, pentsamenduaren deskolonizazioa eta despatriarkalizazioa mahai gainean jartzeaz gain, bereziki beste ezagutza mota batzuk daudenaren kontzientzia hartzea baita. Komunikazio inizatiba asko, tokiko zein inde-



Argazkia: Saraguate



Argazkia: Agencia Plurinacional de Comunicación

pendenteak, beste mundu ikuskera batzuk eta XXI. mendean bizitzeko era batzuk erreskatatzen ari dira, indarrean dagoen bidegabeko garapenari alternatibak eta erresistentziak biltzeko etengabeko ariketa batean.

Labur esanda, pentsamendu hegemonikoaren eta des-erakuntzaren deskolonizazio praktikak eta diskurtsoak sustatzen ari dira, botere harreman existentek sortu eta indartzen dituen heteropatriarkatu eta etnozentrismoari aurre egiteko.

Testuinguru honetan komunikazio indigena jatorrizko herrien errealitatea eraldatzeko erreminta gisa sortzen da eta azken hamarkadetan paper funtsezkoa izan du nekazarien eta indigenen mugimenduan haien eskubide indibidual eta kolektiboak aldarrikatzeari begira. Guzti hau, gainera, sistematikoki haien eskubideak urratzen jarraitzen den errealitatea batean, besteak beste, estatuen eta enpresa transnazionalen aldetik.

Komunikazioa jendartearen begirada hegemoniko eta bakarra indargabetzeko sortzen da, burujabetza, autonomia eta demokrazia bultzatu eta eraikitzeo erabiltzen da, hedabide masiboekin konfrontazioa bilatu beharrean ugaritasuna, aniztasun mugagabea eta diferentzien aberastasuna aitortzeko.

Komunikazio indigena herrien bizitza sustengatu eta aberasten duen funtsezko ekintza bat

da, pentsamendua deskolonizatzeko oinarria izan behar dena eta munduari mundu-ikuskerak eskaini behar dizkiona alternatiba gisa, mendebaldeko zibilizazioaren krisiaren testuinguruan elkarrekikotasunean eta gizakiarekiko zein Ama Lurrarekiko errespetuan oinarritutako mundu berri bat eraikitzeko.

Ikuspegi honekin kontinente amerikarreko ("Abya Yala" herri indigenentzako) erakunde, medio eta komunikatzaile indigenek 2009an hiru urtero Komunikazio Indigenaren Goi-bilera Kontinentalak ospatzeko erabakia hartu zuten. Gaur arte bi goi bilera egin dira, lehenengoa Caucan egin zen, Kolonbian, 2010 urtean, eta bigarrena Oaxacan, Mexikon. Hirugarrena aurtengo azaroan, 2016an, ospatuko da Bolivian.

Kasu honetan, Boliviako III. Goi bilera Kontinentalean lantzeko gaien artean Deskolonizazioa eta Despatriarkatzea bezalako kontzeptuek duten paper garrantzitsua dago, oinarritzko ikuspegi bezala Ongizatearekin batera eraikitzeo "...komunikazio indigena, adierazpen, borroka eta eraldaketa sozialerako tresna gisa; bere printzipio etiko, filosofiko eta politikoetan oinarrituta; praktika eta proposamen propioak berreskuratuz eta estrategiak ezarri, ekintza zehatzekin' epe labur, ertain eta luzerako metak" Komunikazio Sistema Kontinentalera eraikitzen joateari begira. ■

1 Erreferentzia markoa: Bolivia 2016 III. Komunikazio indigenen Goi bilera Kontinentaleko Helburuak, emaitzak eta ekintzak.



# Bolibiako indigenen eta laborarien komunikazioa: AHOZKO TRADIZIOTIK TELEBISTA PLURINAZIONALERA

Tradizioari jarraiki, masa komunikabideak pentsamendu bakarra zabaltzeko paperaren baitan ezaugarritu dira, izaera okzidental-liberal-patriarkatuarekin, botere politiko ekonomikoa duten talde handien zerbitzura. Estrategia honek gizarte akritikoak, kontsumistak, indibidualistak eta apalduak hazteko ahalmena ematen die, ordezkatzan dituzten kasu gehienetan haien interesen eta klase politiko zein ekonomikoen aldeko status quo mantenduz.

Errealitate honen kontrapuntu gisa eta teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuz, azken urteetan hedabide alternatibo berriak indartsu sortzen ari dira. Adibide adierazgarri gisa Bolibiako kasua aipa dezakegu. Azken urteetan bultzatzen ari diren aldatuta prozesuak, beste gertaera garrantzitsu batzuen artean, komunikazio alternatibo indigena hedatzeko eta finkatzeko eszenatoki egokiago batera gidatu du herrialdea, Herri Indigenen Jatorriko Bolibiako Nekazari propioek bideratuta, kontinente osoarentzako erreferente bilakatuz mota honetako komunikazioan.

Hasteko, Bolibiar Estatuko politika osaera berriak (NCPE) lurraldea Estatu Plurinazional gisa definitzen du, osatzen duten 36 herrien aniztasuna eta eskubideak aitortzetik abiatuz. Estatu plurinazional honen eraikuntza kolektiboaren oinarri gisa, Telekomunikazioen Lege Orokor

berri bat onartu zen, lurraldeko herri indigenek erabiltzeko irratia eta telebista frekuentzien %17 erreserbatzen duena.

Bestalde, Bolibiako Estatu Plurinazionalak deskolonizazio prozesu gisa ulertzen du bere burua, hots, ezberdintasunekiko errespetua sustatzen du eta indigenarekiko arrazismoa, diskriminazioa eta gutxiespena suposatzen duten elementu kolonialak gainditzea bilatzen du. Ildo beretik, Bolibiako Estatu Plurinazionalak despatriarkatzeko bideari heldu dio, hau da, emakumeak zapaldu eta baztertzan dituen botere harremanak eraldatzearen alde lan egitea planteatu du.

Komunikazio prozesu honen barruan, batez ere ikus-entzunezkoetan, Herri eta nazio anitzak ordezkatzan dituzten erakunde indigenek eskuratutako "tresna" bezala ulertzen da, haien prozesu politikoaren zerbitzutara ipiniz.

Haien eskubideen aitortzan aurrerapausoak eman ostean, mugimendu indigenaren oraingo erronkak Estatu Plurinazionalaren eraikuntza eraginkorra lortzeko haien proposamenekin eragitean datza, herri indigenen eskubide kolektiboaren aplikazio erreala gauzatzea lortzeko, eta haien erabateko autonomia zein gargarpen propioa sustatzeko.





Argazkia: Agencia Plurinacional de Comunicación

Oraintsu arte, herri indigenak komunikabideetan sartzeko aukera errealetik baztertuta egon izan dira. Zorionez, azken urteetan komunikazio indigenan aurrerapen garrantzitsua eman da hegemoniaren aurkako erreminta eta komunikazio konbentzional eta komertzialaren alternatiba gisa. Ikus-entzunezkoen ekoizpenak eta komunikabide propioek Herri Indigenen eskubide indibidual eta kolektiboen ezagutzan eta zabalpenean lagundu dute; menpeko egorearekiko kontzientzia hartzen eta haien eskubideak exijiarazten; antolakuntza eta mobilizazio soziala lortzen; lurraldeen defentsa eta protestak artikulatzen; haien nortasuna eta baloreak balioan jartzen; memoria historikoa transmititzen; eta kulturartekotasuna eta hizkuntza propioaren erabilera praktikan ipintzen.

Aurrerapen hauen froga moduan, Bolibiako herri indigenek egindako komunikabideen jabetze prozesu arrakastatsuz hitz egin dezakegu gaur. Duela 15 urte baino gehiagotik hona, Mugarik Gabetik CEFREC erakundea, konfederazio indigenak eta CAIB lagundu ditugu bide honetan, azken honen partaideak -bertako komunitate eta erakundeen bidez hautatuak- prozesu honi bizitza ematen dioten komunikatzaileak baitira.

Bidea herri guztien aldetik era parte hartzaile eta adostu batean sortu zen Komunikazio Plan

Nazionalarekin hasi zen (1997), Komunikazio Sistema Indigena oso batean bihurtu arte eboluzionatu zuena, Komunikazio Agentzia Plurinazionaletik interkonektatu eta koordinatzen diren irrati eta telebista zentroekin. Agentzia honek komunikagarriak diren produktuak integratuta dauden konfederazio indigenek ezarritako norabidearekin koordinatu eta artikulatzen ditu (irradi programak, [www.apcbolivia.org](http://www.apcbolivia.org) webgunea, telebista produkzio lokala eta astero telebista publikoan emititzen diren programak).

Gainera, 2005etik estrategia komunikazional honi formakuntza txertatu zaio, ez bakarrik teknikoa, politikoa ere bai, komunikatzaile indigenek, haien komunitateen zerbitzura egindako lanarekin eta oinarrizko erakundeekin, prozesu hau susta dezaten. Helburua egungo aldaketa prozesuan, deskolonizazioan zein izaera eta pentsaerari lotutako despatriarkatzean ekarpena egitea da, hausnarketak eta salaketak egitea bultzatuz, Ongizatearen paradigmaren inplementazioan aurrerapausoak emateko.

Gaur egun, erronka komunikazionala lehendabiziko **Telebista Plurinazional Indigena** mar txan jartzea da, Internet bidezko telebista kanal gisa hasiko dena, bolibiar guztien etxeetan era irekian emititzera iristeko. Etorkizun oparoa opa diegu. ■



# Prensa Comunitaria: HITZA HARTZEN DUGU



Argazkia: Prensa Comunitaria

Prensa Comunitaria 3 urteko bizitza duen prentsa alternatiba agentzia bat da, eta bere eremu sozial, kultural eta politiko guztietan mobilizazio komunitaria bideratuta dagoen hedabide digital bat.

Garrantzia handia ematen diegu pertsoneri, bereziki emakumeei eta herri indigenei. Egiten dituzten ahaleginak eta haien inguruan jasaten dituzten mehatxu egoerak erakusten ditugu. Gure lanean herri indigenak, mestizoak eta antolatutako emakumeak gara paper nagusia dugunak. Zerbaitek ezaugarritzen bagaitu, gu geu garelarealitatea gure narratiba propioetatik kontatzen dugunak da. Gure ikuspuntua feminista eta giza eskubideena da.

Feminismotik begiratu eta aztertzen dugu mugitzen garen errealitatea, eta horrela kontatzen

dugu. Haatik, subjektuak dira neurri handi batean gure lanaren erdigunean daudenak.

Agentzia pertsonen eta hainbat irriti komunitariok osatzen dugu, gu eta besteak informatzeko eskubidean sinesten dugunak, nahiko murrizta eta partziala litzakeena bakarrik komunikabide korporazio handiak existituko balira. Hortaz, agentzia alternatibo gisa teknologia berriak, irudia, hitza, irratia eta asanblada erabiltzen ditugu sozializatzen.

Q'anjob'al, q'iche' maia jatorriko emakume eta gizon talde bat gara, mestizoa, q'eqchi, pocomchi', kakchiquel, herrialdeko leku ezberdinetan bizi garenak eta esperientzia ezberdinak ditugunak, baina amets komun bat eta izaera unitarioa dugu abiapuntu. Hortik dator komunitario nozioa, nola komunitate geogra-



fikoetatik hala identitate kolektiboa ematen dutenetatik.

Prensa Comunitaria osatzen dugun feministentzako erronka izugarria da gure hedabide komunitario eta digital propioari bizitza ematea eta gure begirada maila komunitariora, erregionalera edo internazionalera helarazi ahal izatea. Dokumentatzeko eta informatzeko ikuspegi teoriko metodologikoa feminista da eta aberasten gaituen bestelako begirada batzuekin uztartzen da.

## **Nola ikusten eta egiten dugu komunikazioa?**

Denbora luzean errealitatea azaltzen ez duten albiste bonbardaketa bat jasotzera ohitu gara, bere zati bat soilik ikusteko eraikitzen dena, eta orokorrean baliabide ekonomiko eta politikoen kontrola nor duen erakusten duena, postura eta interes patriarkal, arrazista eta klasizista aldetik.

Gainera, norabide honek menperatzaile ikuspegitik irudikatzen du jendea, hala herri indigenak logika arrazista batetik aurkeztuak izan dira, barbaro bezala kokatuz, eta hortik aurrera haien kontrako abusu eta hilketa sorta bat justifikatu da. Berdina gertatzen da emakumeekin, etengabe estigmatizatzen gaituztenekin biolentzia justifikatzeko; eta gazteriarekin ere, gainjartzen den diskurtso mediatikoaren gatazketako hiru izendatzeagatik.

Azken urteetan kontinenteko arazo sozialak areagotu egin dira enpresa ekstraktiboen iritsierarekin, bizitzaren kudeaketa arriskuan jarri baitute; eta erreken, mendien, mineralen edo petrolioaren indarkeriara joz jabe egiten ari dira; alderik gordinena maiar herriengan jauz-

ten da, eta bereziki, modu sistematiko batean, emakumeengan.

Hau guztiagatik hitza hartzea erabaki dugu, gertaeren gure bertsio propioa kontatzea. Egiten ditugun ahaleginak bezalakoek, dagoeneko nahiko ahul dagoen demokrazian sakontzea dakarte argi eta garbi.

## **Lanaren arriskuak**

Kazetaritza komunitarioa egitea ez da erreza, gure ikerketa eta kobertura lanak arriskua suposatzen baitu. Kasu ezberdinen zabalpenean ahuldade egoeran kokatzen gaituzten desprestigio eta difamazio kanpainak pairatu ditugu, hauek izaera sexual eta misoginoa izan dute.

Heriotza mehatxuak ere eman dira, are gehiago, baita manifestazio komunitario batean zehar jarraipena egitearren lankide baten kartzelatzea ere.

Gure agentziatik sortutako Q´anjob´al Snuc´Jolom Konob´ irrtiak urte bat darama zentsuratu, antzinako autoritate maiek berrirekitzeko egindako saiakera batean fisikoki erasotuak izan ginen, gure taldearen zati bat indarrez atzitu izan zen.

## **Aitorpena eta babes**

Hiru urtetan zehar hazi egin gara, komunitate eta erakundeetatik esker ugari jaso ditugu. Guatemalako Giza Eskubideen Batzordeak (ingelesez GHRC sigladunak) Washingtonen Alice Zachmann Saria eman zigun Prensa Comunitariari 2015eko abenduan, Giza Eskubideen Defendatzaileena. Maitasun eta ahalegin handiz maila komunitarioan, nazionalean eta internazionalean espazio bat irabazi dugu. ■



# KOMUNIKAZIO PAREKIDEA: Hedabideetako informazio sexista gainditzeko bidea

Askotan ikusi izan dugu René Magritte margolariak pipa baten koadro hiperrealista egin zue-nekoa. Egin marrazkiaren azpian honakoa idatzi zuen: "Hau ez da pipa bat". Horrek guztiak, ikusleen berehalako erreazioa sortu zuen; agerikoa zen, pipa bat zen. Margolariak hitza hartu eta modu argian azaldu zuen bere arte-lanaren funtsa: "Ikusten dena ez da pipa bat, ikusten dena pipa baten marrazkia da".

Mundu ikuskera eta pentsamoldea agerikoak diren elementuekin eraikitzen ditugu. Eguneroko kontsumitzen dugu dozenaka albiste erreali-tatearen berri eman nahi dutenak, benetakoa den hori erakutsi nahi dutenak. Gerra eta bakea esaterako, fotogramaz eta tekleatutako hitzez kontatzen zaizkigu. Alabaina, gaur badakigu gerra ez dela halabeharrez bonba hotsekin egiten eta sarritan leherketa soinuek gehiago dutela bakearena.

Parekidetasunarekin antzeko zerbait gertatzen da. Gaur egungo gizartea emakume eta gizonen arteko berdintasunean oinarritzen dela esaten duen ustea gero eta hedatuago dago. Horrek ordea, ekarri beharko luke emakume gehiago ez erahiltzea, pobrezia tasak emakume izenik ez izatea, emakumeen eta hauen gorputzak etengabeko esplotaziopean ez ego-tea... Tamalez, ez da horrela. Berdintasunaren ideiak bizi gaituen honetan akaso, honako orri-oina jarri beharko genioke gure eguneroko koadroari: "hau ez da gizarte parekide bat, hau gizarte parekide baten irudia da".

Horrenbetez, kazetariaren lana ez da samurra, agerikoa den hori kontatzea ez delako nolana-hiko ariketa. Errealitatea deituriko horrek beti dauka norberaren begirada atzean, norberaren fikzioa oinarri. Horregatik, ahalik eta zehaztasun handiarekin informatzea da gaur kazetariarentzako erronka nagusia. Eta ez da nolana-hiko lana.

Baina zer da eta nola adierazten da sexismoa egunoroko albisteetan? Bizi gaituen sistema kapitalista-patriarkalean, dominazio harremanek markatzen dute araua, hegemonikoak ez diren identitateen bazterketan oinarrituz. Emakumeak, identitate sexual ez normatibokoak, ekoizpen bideen jabe ez direnak, hegemonikoak ez diren kulturak, hizkuntzak, herriak... hauek komunikabideen erabaki organo nagusietatik kanpo geratzen dira. Ausentzia horiek guztiak halabeharrez, bazterketa sortzen dute eta horrela albisteak eraikitzerako orduan aipatu errealtateak ez dira kontatzen edo izateko-tan, estereotipozatik tratatzen dira.

Hau guztia emakumeen kasura ekarrita, estrategia ezberdinak erabiltzen dira komunikazioaren munduan hauen partehartze, ordezkaritza eta agerpena baldintzatzeko. Hala, populazioaren erdia diren emakumeen ikusezintasuna eta hauen gaineko iruditegi interesatuaren eraikitzea, ez da ariketa neutro baten emaitza: dominazio eskema baiten baitan kokatzen den estrategia baten ondorio da. Horretan hedabideek hil ala biziko papera betetzen dute,



Arantza Santesteban, Historialaria eta "Komunikazio parekiderantz kazetarietzako eskuliburua" liburuaren egilea

Argazkia: Josu Santesteban

errealitate eta ideologia ekoizle diren heinean. Hartara eta hori guztia gauzatzeko, komunikabideek ohiko errutinen artean integratu ditzuzte segidan aipatuko diren hainbat portaera.

Hasteko, boterea bortxazko formekin lotzen badugu ere askotan praktika askoz zoliagoa izaten da. Izendatzea, definitzea eta kategorizatzea da komunikazio talde handiek duten botere ariketarik indartsuenetako bat.

Horrekin batera, emakumeen identitateari dagokionean, besteekiko duten harremanaren baitan eraikitzen da gehienetan, bereziki familiar eta amatasunari lotuta agertuz eta gutxitan modu autonomo eta agentziadun batean. Emakumeak irudikatze modu honek, erreal edo egiazko bihurtzen du emakume eredu jakin bat, amarena, betiereko zaintzailearena, espazio pribatura dedikatzen denarena. Beste hainbeste kasutan, emakumea ez irudikatzea izan ohi da menpekotasun hau irudikatze modua, ikusezintasunaren logika aplikatuz.

Komunikabideek ere ardura handia dute emakumearen eta gizonaren kategorien eraikuntzan. Modernitatearekin indartzen da emakume/gizon banaketa jendarte sailkatzeko oinarri gisa, eta horrek guztiak genero sistema ulertzeko modua zeharkatzen du. Emakume/gizon dikotomia, bien arteko ezaugarri kontrajarrien eraikuntza eta honen guztiaren naturalizazioa dira ikuspegi honen arauak. Norbera bere ezaugarriekin: arrazoa, indarra, emozioa, zaintza... Zentzu honetan gizona eginbehar batzuetan ariko da halakoa delako, eta emakumea halakoa delako ere bai, posizio subordinatuan egongo da. Iruditegi horren bidez, era berean, gizona zein emakumea boterearen arabera espazioan erakusten dira. Gizonak, espazio publikoan, emakumeak espazio pribatuan.

Funtsean, bada, informazioa ekoiztu eta zabaltzeko egitura eta prozesuetan ematen diren dimentsio guztietan sexismoaren eraginak ikus daitezke: medioen jabego eta kontrolean, testuinguru soziokulturalean, ekintza supranazional zein lokalean, publikizitatearen presioan, erredakzioaren antolaketan hierarkikoan, diskurtsoaren sorreran, errealitatearen tematizazioan, iturri informatiboaren sinesgarritasunean eta publikoaren eraikuntzan. Denak daude genero-harremanekin lotuak. ■



# IRRATI KOMUNITARIOAK ETA LIBREAK BOLIBIAN eta EUSKAL HERRIAN

## Jon Aranburu (ARROSA Sarea) eta Dolores Arce-ri (CEPRA) elkarrizketa

### 1. Hasteko, zer da irradi komunitario edo/eta libre bat? Zerk egiten du irradi libre bat komunitario?

**Jon Aranburu - ARROSA Sarea (JA.AS):** Izatez, ez dago batere argi zerk egiten duen irradi bat libre: emititzeko lizentziarik ez edukitzeak? Diru-laguntzarik ez jasotzeak? Zabaltzen dituen al-bisteetan inoren esku-hartzerik (ez enpresa, ez erakunde, ez elkarte) ez onartzeak?

Galdera horiei guztiei bai erantzunda, ziur irradi bat librea izango dela. Eta ezetz erantzunda ere, ziur izango dela irratirik bere buruari libre deituko dionik. Eta nork esango dio ezetz? Nork esan behar dio ez duela librearen zigilua merezi?

Irrati komunitarioarena, berriz, definituago dator. Irrati komunitarioena komunikabideen hirugarren sektorea da. Lehenengoa publikoak izanda, bigarrena irabazi asmodun pribatuak. Ez du horrek bakarrik egiten, baina, irradi bat komunitario. Izenak dioen bezala, komunitatearekin lotura estuagoa duten irratia gara; herri mugimenduekin lotura estuagoa dutenak, edo.

**Dolores Arce. CEPRA (DA.CEPRA):** Irrati komunitarioak jendartearekin konpromiso bat du, herriarekin; eta askotan jabetza erakunde sozial bati edo komunitateari dagokio. Irrati konbentzional edo komertzialekin irratia dirua irabazteko erreminta gisa ikusten dutelako ezberdintzen da, beste edozein jarduera komertzial izan litekeen bezala.

Aldiz, irradi komunitario batek, ezinbestekoa du komunitatearekin harreman zuzena izatea

(hau komunitate hiritarra ere izan liteke, auzo bat adibidez, biztanleriaren segmentu bat, eta abar), komunikazioaren kontzeptua zerbitzu sozial eta parte hartzailea izanez, tokiko kultura eta bere espresibide ezberdinak errespetatuz. Irrati komunitarioa, hortaz, komunitatearen espresibide eta ahotsa da.

### 2. Sistema mediatikoa bere orokortasunean kontuan hartuz, non pilatzen da irradi komunitario edo/eta librean indarra? Zein rol jokatzen dute era honetako irratiek jendartearen?

**(DA.CEPRA):** Nagusiki legitimitate sozialean pilatzen da, tradizionalki baztertuak izan diren sektoreei komunikabideetan egoteko sarbidea eta ahots propioa onartzearekin batera. Bolibian, 164 Legearen aldarrikapenarekin, sarbiderako demokratizazioari ekin zaio, ordura arte "ilegalak" ziren irradi komunitario askok erregulazioari ekin diotelarik. Beste batzuk lehenbizikoz irradi frekuentzia baterako sarbidea lortu dute, bereziki jatorrizko erakunde sozialek, egunerokoan sektore sozial komunitarioaren hedabide bezala finkatzea lortu dutenak, edo jatorrizko herri laborari indigena gisa.

Komunikabide komunitario hauen rola oinarritzkoa da sarbidearen arrailari buelta emateko eta erabilera mediatiko hegemonikoari aurre egiteko, aldaketa prozesuaren kontrako mezu argia duena. Hedabide handiek azaleko eredu komunikazionalak eta atzerrikoak erreproduzitzen dituzte, irradi komunitarioek herriko kultura eta bizipenak islatzen dituzten bitartean, haien aldarrikapen, borroka, festa eta tristura momentuetan laguntzen dituztelarik.



*...medio hauek mugimendu edo erakunde sozialen eskuetan benetako tresna bilaka daitezzen, beharrezkoa da ekintzak koordinatuko dituen komunikazio estrategia batekin kontatzea hedabide hegemonikoen kontrako bloke artikulatu bezala gehiago eragin ahal izateko.*

**Dolores Arce. CEPRA**

**(JA.AS):** Gure inguruan mass mediak berebiziko garrantzia dute, eta gure indarra eurek jorratzen ez dituzten gaiak edota lantzen ez dituzten moduan lantzean datza. Jakina da komunikabide handi hauek botere ekonomiko eta politikoarekin duten lotura estua dela. Geuk, lotura hauek gabekoak izaki, informazioaren askatasun eta aniztasunean sinesten dugu. Aipatu komunikabide horietan ahotsik ez duenarentzako bozgorailu izatean datza gure funtzioa, beraz. Eta gizarteak modu horretan hartzen gaituen sentsazioa dugu

### **3. Zeintzuk dira irriti komunitario edo/eta libreek aurre egin behar dieten mehatxu nagusiak?**

**(JA.AS):** Mehatxu mailak eta motak diferentziazkoak dira, batez ere eremu administratibo ezberdinetan gaudelako. Iparraldeko irriti komunitarioen egoera legezkoa da, Frantziar estatuan, lizentziarik gabe irriti batek ez luke hila bere ere iraungo eta honek, babes legala eta diru-laguntzetarako sarrera ematen die; Nafarroa eta EAEko irration gehiengoa, berriz, lizentziarik gabe ari gara emititzen. Hori, noski, bada mehatxua, baina gauzatu ez dena, azken urteotan, behintzat.

**(DA.CEPRA):** Mehatxuak asko daude, akaso nagusia jasangarritasun ekonomikoa da, irriti komunitario asko baldintza prekarioetan daudelako nola ekipamenduari hala langile edo

egoera administratibo legalari dagokionean. Gainera, Estatuarekin kontratuak lortzeko exijitzen diren baldintzekin ez kontatzean dituzten diru sarrera urriek ez diete gastuei aurre egitea ahalbidetzen.

Beste mehatxu bat arraila teknologikoa da, telefono eta internet zerbitzuetan landa eremuan aurrerapausoak eman baziren ere eskasa da, eta askotan eskurazina, irriti komunitario batentzako erlatiboki gastu altua du eta.

### **4. Hizkuntza gutxituak existitzen diren gurea bezalako nazioetan, zein funtzio bete dezakete era honetako irratiek hizkuntza hauek indartu eta sustatzeko?**

**(DA.CEPRA):** Bolibikiak, Estatu Plurinazionala den aldetik, jatorrizko 36 herri indigena aitortzen ditu, arbasoengandik Afrikako sustraiak dituztenak barne. Jakina irriti komunitarioek jatorrizko hizkuntzak bizirik mantentzen laguntzen dutela, herrien ahozko kultura aberatsa islatzeko espresibiderik onena dira. Kultur jaialdiak, lehiaketak, ekoizpen azokak, herriko festak edo erakundeek ekintza sindikal zein politikoa irriti komunitarioengandik transmititzen dira, bertako hizkuntza eta lengoia, herri zapoarekin.

**(JA.AS):** Arrosa sareko irratioek batzen gaituena Euskaraz aritzea da, beste ezeren gainetik. Nor bere txikian ia ikusezin ginen komunikabideak ►



sarean ikusgarriago bihurtu gara, eta horrek berak Euskaldun guztioi euskaraz dugun aukera zabaldu digu. Kontuan hartu behar da Euskal Herrian, dialean, euskararen presentzia oso txikia dela. Euskaraz aritzen den Irrati publiko bakarrez aparte Arrosa sareko irratia dira euskaraz aritzen diren ia bakarrak. Eskaintza urri horri geure aletxoak jartzen diogu, behintzat. Presentzia horrekin, noski, hizkuntzaren erabileraren normalizazioan eragiten dugu. Izan ere, Euskaldunentzat erreferentziak sortzen ditugu, hizkuntzaren erabileran ahaldundute bidean lagungarri izan dakizkienak. Hitzun komunitatea trinkotzen laguntzen dugulakoan gaude.

### **5. Zein uste duzu izan behar dela irradi komunitarioen eta mugimendu sozialen arteko harremana, batenbat egon behar duela uste baldin baduzu?**

**(JA.AS):** Harreman estua izan dutelakoan, eta hala izan behar duelakoan nago. Orain, sare sozialek indarra hartu duten heinean, herri mugimenduek badituzte beste bozgorailu batzuk euren mezuak zabaltzeko, baina historikoki, gurean, irradi libre eta komunitariook izan gara euren bozgorailu (ia) bakar. Zenbait irratitan, gainera, mugimenduek beraiek antolakuntzan bertan parte hartu izan dute, izan irratsaioak egiten, izan irratia bultzatzen.

Irratiok tresna izan gaitezkeela herri mugimenduentzat: izan gaitezke, eta bagara.

**(DA.CEPR):** Harremana organikoa izan behar da, beso komunikazional gisa definienez, sektorearen barruan elkar komunikatzea ahalbidetzen baitu, baina baita kanpora ere, jarraipen zabalak, proposamenak edo salaketak, prentsa komunikatuak edo bestelakoak ezagutzera emanez.

Azken urte hauetako aurrerapenetako bat, bereziki, irradi frekuentzia legeletara sarbidea

onartzea izan da, mugimendu sozialen aldetik. Alabaina, mugimendu eta erakunde sozialen eskura dauden hedabide hauek benetako tresna bilaka daitezkeen beharrezkoa da estrategia komunikatibo batekin kontatzea, hedabide hegemonikoen kontrako bloke artikulatu bezala gehiago eragin ahal izateko.

### **6. Zein da Euskal Herriko eta Bolibiako irradi libreen gaur egungo egoera? Zeintzuk dira etorkizunari begira erronka nagusiak?**

**(DA.CEPR):** Gaur egun, irradi komunitarioak urrats garrantzitsuak ematen ari dira instituzionalitate berri baterantz, batzuk haien egoera legala erregularizatzen, eta beste batzuk sartzen, baina frekuentzien sarbiderako demokratizazioa apenas da lehen pausoa.

Sarbide eta berrikuntza teknologikoa inperatibo bat da, publizitate tostetarako sarbidea demokratizatzea bezala, irradi komunitarioak txertatu, eta beraz, prozesu administratiboak sinplifikatu. Irrati komunitarioentzako jasangarritasun integrala lortzeko proposamenak lantzea, erakunde sozialen eta jatorrizko herrien irratia barne hartuz (RPO's), Komunikazio Ministeritzaren menpe dago oraindik, 100 emisoreko sarea gutxi gora behera.

Irrati komunitarioetako komunikatzaileen formakuntza eta gaitasun aukerak izan behar dira erronka nagusi ere, kazetari edo irradi operadore gisa akreditatzen dituzten eskumenetan ikastaro teoriko praktikoen zertifikazioarekin batera. Honen inguruan badira gauzatu diren prozesu interesgarriak, CEPR eta CEFREC instituzioena kasu.

Erronka bat departamentu maila bakoitzean errolda bat eskuratzea litzake, irradi komunitarioen existentzien datu eguneratu bat izateko (frekuentzia legalik oraindik ez duten irratia) edo komertzial kategorian daudenak iraganeko



*...komunikabide handi hauek botere ekonomiko eta politikoa-ekin duten lotura estua dela. Geuk, lotura hauek gabekoak izaki, informazioaren askatasun eta aniztasunean sinesten dugu.*

**Jon Aranburu Artano. ARROSA Sarea**

kudeaketetan bidezko sailkatze bat ez egitea-gatik barne hartuz).

Azkenik, sare lana dago, iritzi publikoaren au-rrean artikulatzeko edo eragiteko modu gisa, herritarren kontrako sektore ekonomiko eta politikoei lotutako erabilera mediatikoaren kontrapisu legitimo bezala.

**(JA.AS):** 80. Hamarkadako loraldiaren ostean, 90. Hamarkadan asko eta askok emititzeari utzi zioten. 2000 urteaz geroztik, irrati batzuk sortu dira, besteren bat desagertu ere bai, baina, oro har, kopurua mantendu egin da. Zenbait, gaine-ra, sendotu egin dira, eta erreferentzia dira Eus-kal Herrian (Hala Bedi Irratia, esaterako).

Oro har, irratiok internet sareak ekarri dituen al-daketetara ongi moldatu dira, nahiz eta zenbait gabezia badituzten. Gabezia hauetan leudeke aurrera begirako erronka batzuk. Irratiak izan-da ere beste modu askotara (webguneen, sare sozialen, bideoen, etc.) komunikatzen dugula kontziente izan, eta transmedia izaten egoki asmatzean datza gure erronka nagusienetako bat. Honen inguruan gogoetan daramatzagu urte batzuk, eta askotariko esperientziak mar-txan jarrita ditugu.

Eta gero, noski, elkarlanak erronka izaten jarrai-tzen du. Irrati txikiak gara, batez ere, eta era-giteko gaitasun gutxi dugu, inguruan ditugun komunikabide handien eraginez. Elkartuta, ordea, sarean, gauza handiak egin ditzakegu. Sorreratik, gure sareak asmo hori izan du, eta horrekin jarraitzen dugu.

Erronka baino, eskaria, berriz, euskarazko irrati komunitarioon egoera normalizatzean datza. Lege aldetik gure egoera erregulatuko lituzke-ten pausoak eman beharko lituzkete institu-zioek, izan 3. Sektoreko komunikabideak aitor-tuz, izan euskaraz ariko diren irratiak bultzadak emanaz. ■



# Herri indigenen XII. zinema eta bideo Jaialdiaren kronika

## FICWALLMAPU 2015



“Com puche, com pu lagmien, com pu wenuy”. Mapudungum- ez (maputxe hizkuntza) hitz horiekin luzatzen zitzaion agurra jendeari, ahizpa eta nebei, eta Herri Indigenen

Nazioarteko XII Zinema eta Bideo Jaialdia inauguratzen zen. FICWALLMAPU 2015 izendatu zuten festibala, Nazioarteko

Zinema Jaialdiaren inzialengatik eta Wallmapun egiteagatik berau, hau da, Andeetako mendikatearen bi aldeetan dagoen maputxe lurraldea, Txile eta Argentinako estatuetan. Hala, 2015eko azaroaren 17tik 21era Temucon, Ngulumapu, edo ekialdeko territorioan (Txileko estatua) burutu zen ekitaldia, hilabete eta urte bereko 26tik 28ra jarraipena Barilochen, Puelmapun edo mendebaldeko lurraldeetan (Argentinako estatua) aurrera eramateko.

Baina, nahiz eta jaialdiak ardatz nagusitzat izan 50 bideo dokumental, fikzio eta pelikula baino gehiago erakustea (besteak beste, Mugarik Gabek ekoitzitako “Eutsi edo Hil – Resistir o Morir” aurkeztu zen), hori baino askoz gehiago da. Lehen ezaugarri berezkoa, nahiz eta amaieran maila ezberdinetan aitortza ugari egin (giza eskubideen defentsa, fikzio onena, emakumeen eskubideen defentsaren bideo onena, eta abar) hau ez dela jaialdi lehiakor bat. Ez dago sari metalikorik, publikoaren eta erakunde indigenen aitortza baizik. Beste behin ere zinema jaialdien irudi tradizionalarekin hausten da honela, herri indigenen ekintza kolektibo batean baikaude.

Horretarako, Quebec, Mexiko, Guatemala, Kolonbia, Venezuela, Zelanda Berria eta abarreko herri indigenak, 17 estatu-nazio, kontinente-ko 70 herri baino gehiagotako ordezkariak, bi urtean behin ekitaldi garrantzitsu honetan elkartzen dira CLACPI Herri Indigenen Latinoamerikako Zine eta Komunikazio Koordinakundearen baitan. Era honetan, herrien eta erakundearen arteko topaketa honek haien nortasuna, aniztasuna eta jendarte justuak eraikitze proposamenak erakusteko beta ematen du, baina baita haien problematika komuna lantzekoa ere, herri eta pertsona gisa eskubideen urraketa sistematikoan itzul daitekeena, haien kriminalizazioan, diskriminazio eta arrazakerian edo emakume indigenen aurkako eraso zehatzetan.

Testuinguru honetan, 2015eko XII Wallmapu Festibalak, azaroaren 17 iluntzeko hasiera ekitalditik bertatik suposatu zuen arrakasta, La Fronterako Unibertsitateko areto nagusiaren edukiera mugara iritsiz. Baina ordurako bazeramatzaten hainbat ordu maputxeen territorioko zein gainontzeko kontinente-ko errealitateak aztertze lanean eta komunikazio propioak haien prozesuetan duen eraginaz hausnartzen. Honetan bezala, komunikabide masiboetan gertatzen ez den moduan, komunikabide alternatibo bezala eraiki behar da herrien nortasunaren isla, baina berau erakunde indigenek kontrolatutako erreminta bat izan behar dela ulertuz.

Eta beti bezala, prozesuetaz hobekien hitz egin dezakeena protagonista denez, haien subjektu politikoa, jarraian XII. Zinema Festibaleko amaierako dokumentuaren zati bat erreproduzitzen dugu.



Argazkia: Mugarik Gabe

## **“FICWALLMAPU 2015” JAIALDIAREN AMAIERAKO ADIERAZPENAREN LABURPENA JAIALDIAREN IZAERAREN INGURUAN**

(...) Komunikazio sistema indigena eraikitzen eta sortzen jarraitzeko gure konpromisoa, borondatea eta erabakia; zine eta bideoen produkzio eta errealizazioarekin eta bestelako komunikazio bideei helduz, eta gure gizarteetako erreminta teknologiko moderno guztiak zein aspaldiko komunikabideak erabiliz.

Sistema Komunikazional indigena honek, sistema kapitalistaren zerbitzura dagoen men-debaldeko komunikazio sistema hiritarrarekin alderatuz, kosmobisioetan, memorian, praktikan, historian eta Abya Yalako herrien iraganen eta orainean oinarritzen eta sortzen ditu bere edukiak; ikuskera kosmozentrikotik, ama lurraren izpirituari jarraituz kode propioak, errepresentazio sinbolikoak eta narrazio zikloak sortuz.

Historiako une honetan urgentziazkoa eta garrantzitsua da komunikazio sistema indigena eraikitzea, sortzea eta finkatzea; kapitalismoaren krisi estruktural berankor sakonak markatu eta ezaugarritzen baitu, lurraren aberastasuna, janariena, komunikabideena eta botere estruktura guztiena, imaginario sozial, kultural eta politikoak barne, bere eginez.

Garai honen amaieran, oinarrizko lehengaitan aberatsak diren lurraldeekiko herrialde hegemonikoen biolentziak bereizten duenean gainera, krisian dagoen ekonomia globalak salbazio gisa oinarrizko lehengaiak, petrolio, gasa, urrea, ura, eta abar ditu. Duela milioika mendetik ama lurrak gordeta duen aberastasuna, eta neurrigabeko ateratzeak edo harrapaketak agortzea ekarriko duena, oreka ekologikoa, planetarena eta ama lurraren bitzta arriskuan jarritz.

(...) Azkenik, gure sistema komunikazionalak: zinema, bideoa, irratia eta komunikazio indigenen forma eta sormen bide nagusiak, orain gure lurren eta territorioen defentsarako instrumentu, erreminta eta arma direla baieztatu nahi dugu, gure herriena, gure kultura eta bizitzena, Abya Yalako herri guztien batasuna eta bitzta josiz.

**Informazio gehiago eta agiri osoa:**

[www.ficwallmapu.cl](http://www.ficwallmapu.cl)

[www.clacpi.org](http://www.clacpi.org)



MUGARIK GABE  
www.mugarikgabe.org

# ¿Qué mundo queremos?

hitzekoa de seres, y no de teneres  
zein izakiek, de mujeres

Zure ekarpenari esker lanean jarraitzen dugu.

Mugarik Gaberekin kolaboratu dezakezu  
urteroko kuota batekin,  
diru dohaintza puntualekin edo elkartasun legatu batekin.

Horrela, hezkuntza eta lankidetzarekin bitartez,  
pertsona guztientzako justua den mundu baten alde  
egingo duzu.



hartzen duena

alaia

hermoso un mundo  
alegre y libre

Diru-sartzeak web gunean edo honako kontuetan:

LABORAL KUTXA ES71 3035 0083 22 0830701234

Gran Vía 1 (Bilbao)

FIARE ES36 1550 0001 2000 0068 8622